



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

ARETO FUTBOLA

1. JOKO ZELAIA

Zelaia angeluzuzena izango da, 25 eta 42 metro bitarteko luzerakoa eta 15 eta 25 metro bitarteko zabalera.

Penalti area hiru marrak mugatuko dute. Hiru metro luzeko lerro zuzen bat, ateko marrarekiko paraleloan eta horretatik sei metrora egina. Beste bi marrak, ateko zutoin bakoitzaren oina erdigune hartuta sei metroko erradioko zirkunferentzia bi marrantuta ateratzen diren bi kurbak izango dira. Azken marra hauek, aurretik esandako lerro paraleloaren bi muturrak hondoko marrarekin lotuko dituzte.

2. BALOIA

BENJAMIN, KIMU, HAUR ETA KADETEEN mailetan, baloiaren zirkunferentzia 59 eta 62 cm bitartekoa izango da, eta haren pisua, 410 eta 430 g bitartekoa. Materiala larrua izango da.

3. ATEA

Ateen neurriak hauek izango dira: 3 metroko zabalera eta 2 metroko altuera.

4. JOKALARIAK

Arabako Eskolarteko Jokoetan BENJAMIN, KIMU, HAUR ETA KADETEEN mailetan parte hartu ahal izateko, gutxienez 8 jokalarik eta gehienez 12 jokalarik behar dira. Aurrekoa gorabehera, partida hasi ahal izango da, baldin eta zelaian atezaina eta lau jokalarik badaude, hau da, guztira, bost jokalarik badaude. Bost badaude, jokalarik nahikoa daudela usteko da eta ez da aplikatuko ez-azaltzei buruzkorik.

Zelaian atezain batek eta 4 jokalarik baino ezin dezakete jokatu aldi berean. Izena emandako guztiak atezain bezala nahiz zelaiko jokalarik bezala aritu daitezke, baina atezainaren elastikoa bere taldekideena ez bezalako kolorekoa izan behar da.

Goragoko kategoriako jokalarik baimenduek, denek batera, ezin izango dute partidaren % 50 baino gehiago jokatu.

Goragoko kategoriako jokalarik bati baino gehiagori ematen bazaio talde berean jokatze baimena, jokalarik horiek ezingo dute, inola ere, biek batera jokatu.

5. ENTRENATZAILEA

Taldearekin izena emandako entrenatzaile-hezitzaileak nahitaez egon behar du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die zelaian albotik eta jokalarik aldatzeko eta hutsarteak eskatzeko arduraduna da. Jokalarik, ordezkoen eta beraiekin daudenen portaeraren erantzule ere izango da.



6. PARTIDEN IRAUPENA

BENJAMINEN mailan, partidaren iraupena berrogei (40) minutukoa izango da, hamarna (10) minutuko lau zatitan banatuta. Horien artean bi (2) minutuko atsedena egingo da. Denbora korritua izango da. Aktan jasotako jokalariek guztiek gutxienez denbora batez egon beharko dute joko zelaian. Jokalari bat joko zelaian partidaren lau zatitan egon ahal izateko, zati oso batean zelaiko jokalariek moduan eta beste zati batean oso-osorik atezain moduan jokatu beharko du, edo aktan jasotako jokalariek guztiek lehenengo bi zatietan oso-osorik parte hartu beharko dute. Arau hau betetzen ez bada, partida galdutzat emango zaio, hiru eta hutseko emaitzarekin. Hala ere, partidaren tantoen alde handiagoa izanez gero, tantoen alde hori izango da emaitza, baldin eta irabazlea araua hautsi duen taldea ez bada.

KIMU, HAUR ETA KADETEEN mailetan, partidaren iraupena berrogeita hamar (50) minutukoa izango da, hogeita bosna (25) minutuko bi zatitan banatuta. Horien artean, gehienez ere, bost (5) minutuko atsedena egingo da. Denbora korritua izango da.

7. HUTSARTEAK

BENJAMINEN mailan, entrenatzaile-hezitzaileak azken laurdenean hutsarte bat eskatu ahal izango du.

KIMU, HAUR eta KADETEEN mailetan, entrenatzaile-hezitzaileak minutu bateko hutsarte bat eskatu ahal izango du partidaren zati bakoitzean.

8. JOKALARIEN TXANDAKETA ETA ALDAKETAK

Benjaminen mailan. Aktan jasotako jokalariek guztiek gutxienez denbora batez egon beharko dute joko zelaian. Jokalari bat joko zelaian partidaren lau zatitan egon ahal izateko, zati oso batean zelaiko jokalariek moduan eta beste zati batean oso-osorik atezain moduan jokatu beharko du, edo aktan jasotako jokalariek guztiek lehenengo bi zatietan oso-osorik parte hartu beharko dute. Arau hau betetzen ez bada, partida galdutzat emango zaio, hiru eta hutseko emaitzarekin. Hala ere, partidaren tantoen alde handiagoa izanez gero, tantoen alde hori izango da emaitza, baldin eta irabazlea araua hautsi duen taldea ez bada.

KIMUen mailan, nahi adina aldaketa egin daitezke, baldin eta epaileak baimendu eta pilota jokoan ez badago. Edonola ere, aktan jasotako jokalariek guztiek jokatu beharko dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Aldaketak zelaian erdigunetik egingo dira eta ordezkaturako jokalariek joko zelaitik atera beharko du bere ordezkaturako duen jokalaria zelaian sartu baino lehenago.

Gainerako mailetan, nahi adina aldaketa egin daiteke. Aldaketak baloia jokoan dela egingo dira, epailearen baimenik gabe. Edonola ere, aktan jasotako jokalariek guztiek jokatu beharko dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Aldaketak zelaian erdigunetik egingo dira eta ordezkaturako jokalariek joko zelaitik atera beharko du bere ordezkaturako duen jokalaria zelaian sartu baino lehenago.



9. TXARTEL HORIA

Txartel horiak jokalaria bi (2) minutuz kanporatzea ekarriko du. Epaileak txartel horia erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalariari:

- Joko arauak behin eta berriz urratzea
- Hitzez edo keinuz epailearen erabakiak gaitzestea
- Portaera ezegokia izatea
- Joko garbiaren izpirituaren aurka jokatzea

Kargu hartutako jokalaria ezingo da beste jokalari batez aldatu.

Kargu hartutako jokalaria, zigorraren bi minutuak bete ondoren, joko zelaira itzuli ahal izango da.

10. TXARTEL GORRIA EDO BI HORI

Txartel gorria edo bi hori izateak jokalaria 2 minutuz kanporatzea ekarriko du, bai eta, denbora hori igarotakoan, beste jokalari batez aldatu behar izatea ere. Aldaketa hori beste zernahi aldaketa bezala kontatuko da.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio hauetakoren bat egiten duen jokalariari:

- Jokalaria indarkeriaz ari izan edo zakarki jokatu.
- Asmo iraingarriz edo gordinkeriaz jokatu.
- Kargu hartu eta gero ere, kargu hartzea merezi duen portaera izaten jarraitu.

Bi horik ez dute ekarriko hurrengo jardunaldian ezin jokatu izatea; beraz, taldeak erabili ahal izango du jokalaria jokatzeko den hurrengo jardunaldi edo partida ofizialean.

11. ATEKO SAKEA

Atezainak eskuarekin atera beharko du baloia eta, honek zelai erdiko marra gainditu baino lehen, lurrian bote egin beharko du edo beste jokalari batek ukitu beharko du.

Arau hausterik egiten bada, baloia zelaiaren erdialdetik aterako da.

12. ATEZAINARI BALOIA EMATEA

Baloia atezainari eman dakioko:

- Baloia oinarekin borondatez ematen bazaio, atezainak baloia oinarekin bakarrik jokatu ahal izango du, inoiz ere ez eskuaz. Hala egiten badu, atezainak baloia ukitu duen lekuan jaurtiketa libre ez zuzena adieraziko du epaileak (BENJAMIN eta KIMU kategorietan kornerra izango da)
- Era berean, atezainak baloia ukitu duen lekuan jaurtiketa ez zuzena adieraziko da, atezainak baloia eskuaz ukitzen badu bere taldekide batek alboko sakea egin ondoren. (BENJAMIN eta KIMU kategorietan kornerra izango da)
- Jokalari batek baloia bere atezainari eman eta honek arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori area txikiko punturik hurbilenean jaurtiketa libre ez zuzenarekin zigortuko da. (BENJAMIN eta KIMU kategorietan kornerra izango da)
- Ez da zigortuko atezainak baloia eskuz hartzea taldekide batek bularrak edo buruaz ematen dionean, horretarako berariaz prestatu gabe.



13. ATEZAINAK AREATIK KANPO JOKATZEA

Atezain ari den jokalaria areatik kanpo baloia oinarekin jokatu dezake, eskuekin ukitu gabe.

14. ARAUZ KONTRAKO LERROKADURA

Talde batek jokalaria bat arauz kontra edo modu okerrean sartzen bada jokalaria zerrendan, galdutzat emango zaio partida hiru eta hutseko emaitzaz. Partidako tantoen aldea handiagoa izanez gero, emaitza hori hartuko da, talde irabazlea araua hautsi duena ez bada.

Jokalaria bat jokalaria zerrendan arauz kontra sartzearen zergatia administrazio arau bat ez betetzea baldin bada, hala nola lizentzia modu egokian bideratu ez izatea, goian azaldutako baldintzetan partida galtzeaz gainera, sailkapen orokorrean hiru puntu kenduz zigortuko da taldea.

15. PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzera agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez agertzea: partida hiru eta hutseko emaitzaz galtzea.
- b) Bigarren ez agertzea lehiaketa berean: partida hiru eta hutseko emaitzaz galtzea eta sailkapen orokorrean hiru puntu kentzea.
- c) Legozkiokeen eskubide guztiak galtzea; hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, baina sailkapenean punturik lortu gabe.

Partida jokatzeko behar adina baino jokalaria gutxiagorekin agertzen den taldea, aurkeztu ez balitz bezala izango da, eta dagozkion zigorrak jarriko zaizkio.

Deskalkifikatutako talde batek lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatu egingo dira.

16. ZELAI ETA AUTOBUS ESKAERA

Partidak jokatzeko xedez, Arabako Futbol Federazioari zelaien erabilera eskatu behar zaionean, gutxienez, hamabost egun lehenago bidali beharko zaio eskaera.

Autobus bat kontratatzea gomendagarri egiten duen pertsona nahikorik (gutxienez, hamar) badago, bat jarriko da haien eskueran.

Jardunaldi aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehen egingo da horretarako eskaera.

17. PARTIDEN ORDUTEGIA

Etxean jokatzeko duen taldeak, nahitaez, partida jokatzeko den orduaren eta lekua berri eman beharko dio federazioari, partida hori jokatu aurreko astelehen arratsaldeko 19:00ak baino lehenago. Partida jokatzeko ordua eta lekua jakinarazten ez bada, etxean jokatzeko duen taldeari partida galtzea ezarriko zaio zigor. Udalak



denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietako partidetan. Udal kirol instalazioen eskatzaileei jakinaraziko zaie araudi hori.

Taldeetako batek beste herri batera joan behar duen partidetarako, ordua goizeko 10:00etatik 12:00etara izango da.

Halaber, partiden ordua parte hartzaileen adinari egokitzeko gomendioa egiten da. Horrela, goragoko mailetan, partiden ordua goizago izango da beheagoko mailetan baino.

18. PARTIDEN ORDUA ALDATZEA

Orduz aldatu nahi duen taldeak nahitaez federazioari jakinarazi beharko dio. Hala ere, ez da orduz aldatuko kontrako taldearen adostasunik gabe. Gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko zaio jakinarazpena kontrako taldeari. Aurkako taldearen adostasunik izan ezean, eta partida beste ordu horretan jokatzeko bada, ordua aldatu zuen taldeari partida galdutzat emango zaio. (Udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaiekin)

19. LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketaren egutegia ezinbesteko arrazoiengatik baino ezin izango da aldatu. Edozein arrazoiengatik (elkarbizialdiak, ikasketa amaierako bidaiak, eta abar) partidaren bat atzeratzea beharrezkoa denean, kontrako taldearen adostasuna eta neurketa egingo den eguna eta ordua aurkeztu beharko dira. Bi egoera horietako edozeinetan, Arabako FUTBOL Federazioari idatziz eskatu beharko zaio, HAMABOST EGUN lehenago.

BENJAMINEN mailan ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera utzitako partidak ez dira jokatu.

Beste mailen kasuan, partidak ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera uzten direnean, ekipo parte hartzaileek partida ospatzeko egun berria jakinarazi beharko diote federazioari berrogeita zortzi (48) ordu igaro baino lehen; ondoren, lehiaketa batzordeak egun hori onartzen duen ala ez esan beharko du. Edozelan ere, partida bertan behera utzi den egunetik 15 egun igaro baino lehen ospatu beharko da partida. Jaiegunik ez badago, partida lanegunean programatu beharko da.

Arau horietakoren bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez azaltzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

20. PARTIDETAKO EMAITZAK

Etxean jokatzeko duen taldeak Arabako Futbol Federazioari idatziz jakinarazi beharko dio partidako emaitza, neurketaren ondoko lehenengo laneguneko arratsaldeko 7ak baino lehenago. Jakinarazpen hori bi modu hauetako batez egingo da: partidako akta Federazioaren lokaletan (Amadeo García de Salazar plaza, 2 – 1. solairua, Gasteiz) aurkeztuz, edota akta faxez (tel. 945-280137) edo posta elektronikoz (administracion@faf-aff.org) bidali eta gero jatorrizko akta bidaliz. Etxeko taldeak emaitzaren berri ematen ez badu, talde hori honela zigortuko da:

- a) Lehenengo aldia: emaitza mantendu egingo da, baina etxeko taldeari puntu bat kenduko zaio sailkapen orokorrean.



- b) Bigarren aldia lehiaketa berean: hiru puntu kenduko dira sailkapen orokorrean eta partidaren emaitza mantendu egingo da.
- c) Hirugarren aldia lehiaketa berean: taldeak eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe. Azken kasu honetan, deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatu egingo dira.

BENJAMINEN mailan akta labur bat egingo da, partida jokatu dela eta 1. faseko emaitzak adierazteko. Bigarren fasean ez da partidaren emaitza adierazi behar. BENJAMINEN mailan akta aurkezten ez bada, Aldundiari jakinaraziko zaio.

21. LEHIAKETA MAILA

Talde bakoitzak, izena ematerakoan, nahitaez adierazi behar du zein mailatan jokatu nahi duen: lehiaketa.

22. PUNTUAZIOA

Partidan aldea 8 gol baino gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeak hala eskatzen badu.

23. -DIZIPLINA ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa, aplikatuko da.

Pilatu egingo dira falta zehagarriak, alegia, ez da futbolaren eta areto futbolaren artean bereiziko, epaileen zigor espedienteen izapidetzean atzerapen edo luzapenik izan ez dadin.

ARAUTEGI HONETAN AURREIKUSTEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK ARETO FUTBOLEKO BATZORDE NAZIONALAREN JOKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO DIRA.



5EKO FUTBOLEKO ARAUTEGIAREN LABURPEN TAULA

Joko denbora	Benjaminak: 10 minutuko 4 zati eta, horien artean, 2 minutuko atsedenaldiak. Gainerako mailak: 25 minutuko 2 zati eta, horien artean, 5 minutuko atsedenaldiak.
Denboraren kontrola	Denbora korritua.
Baloia	Zirkunferentzia: 59 eta 62 cm bitartean Pisua: 410 eta 430 gramo bitartean
Aldaketak	Benjaminak eta kimuak: 4. zatian bakarrik egin daitezke aldaketak Gainerako mailak: aldaketa kopuruak ez du mugarik
Hutsarteak	Benjaminak eta kimuak: minutu bateko (1) hutsarte 1, azken zatian Gainerako mailak: minutu bateko (1) hutsarte 1, zati bakoitzean
Txartel horia	Jokalaria 2 minutuz kanpora botatzea
Txartel gorria	Jokalaria 2 minutuz kanporatu eta gero bera aldatzea.
Ateko sarea	Atezainak egingo du eskuarekin eta, zelai erdiko marra pasatu baino lehen, lurrian bote egin beharko du edo jokalariren batek ukitu.
Atezainari baloia ematea	Jokalaria batek baloia bere atezainari eman eta honek arearen barruan eskuz jasotzen baldin bada, ekintza hori area txikiko punturik hurbilenean jaurtiketa libre ez zuzenarekin zigortuko da. (BENJAMIN eta KIMU kategorietan kornerra izango da) Ez da zigorrik ezarriko baloia, nahi gabeko ekintza batean, bularraz edo buruaz jotzen bada.
Puntuazioa	Partidan aldea 8 gol baino gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldearen entrenatzaileak hala eskatzen bada.